

IRAKURRI TESTUA ETA ERANTZUN GALDERAK.

Atzo igandea zen, eta Kepa hamaikak eta laurdenetan esnatu zen. Berandu esnatu zen aurreko egunean oso nekatuta bukatu zuelako. Esne baso bat eta gaileta batzuk gosalduta ondoren, bere logela txukuntzen ibili zen. Ondoren, dutxa bero bat hartu eta hortzak garbitu zituen.

Hotza eta euria egiten zuenez, goiza etxean pasa zuen Kepak liburu bat irakurtzen. Oso gustura egon zen beldurrezko istorioak irakurtzen. Arratsaldean, gurasoekin zinemara joan zen abenturazko pelikula bat ikustera. Azkenik, eguna bukatzeko, pizza batzuk eskatuko zituzten etxera eramateko eta bertan afaltzeko. Egun polita pasa zuen Kepak!

Erantzun galderak:

1. Zergatik esnatu zen berandu Kepa?
2. Zer egin zuen gosalduta eta gero?
3. Nolako eguraldia egiten zuen?
4. Zer egon zen irakurtzen?
5. Zer egin zuten egunaren amaieran?
6. Zuri zer gustatzen zaizu egitea eguraldi txarra egiten duen egunetan?
7. Ba al dago zinemarik Zarautzen? Non dago pelikulak ikusteko aukera?